# *Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan aro politiko berri baten aldeko hautagaitza bateratuak osatzeko deia*

Aldaketa garaia bizi dugu, aldaketarako garaia, eta Euskal Herriko jendartearen kezka nagusietakoak diren hiru gairi aurre egitea eskatzen du horrek.

-Aldaketa sozialaren beharra dago. Horretarako, errotik eta sakonki irauli behar dira politika publikoak nahiz jarrera sozialak. Bukatutzat eman behar dira austeritate politikak eta krisia ezin da gehiago erabili errenta mailaren, enpleguaren, zerbitzu publikoen eta babes sistemen arloko inboluzio sozialerako. Pairatzen ari garen krisiak izaera bikoitza du: batetik, egiturazko krisia da, planetaren mugak gainditzen ari direlako; bestetik, zaintzen krisia da, gero eta zailagoa baita erreprodukzio sozialaren eta eguneroko ongizatearen arloko beharrei erantzutea. Doitze eta murrizketa politikek lana sexuaren arabera banatzeko logika patriarkala indartzen dute.

-Espainiako estatuan prozesu demokratiko bat abiarazi eta eraiki beharra dago, hala nahi duten komunitate nazionalen eraikuntza politikoa barne hartuz. Konstituzioaren edo autonomia estatutuen erreformatik harago joango diren prozesu eratzaileen bidez egin behar da hori, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa erabakitze subjektutzat onartuz eta prozesu horretan alternatiba desberdinak aurkezteko aukera emanez (independentzia, federazioa edo autonomia).

-Pluraltasunetik eta indarkeria guztiei uko eginez, beharrezkoa da bake prozesua eta normalizazio politikoa sendotzea, askatasunak zabaltzea eta segurtasunaren aitzakiarekin oinarrizko askatasunak are gehiago sakrifikatu dituzten azken lege aldaketak bertan behera uztea. Trantsiziotik gaur egunera arte izandako esperientziari esker konturatu gara hemen ez dagoela benetako demokraziarik, eta jendarte benetan demokratiko bati eta herritarrek parte hartzeko moduei buruzko begirada berri eta partekatu bat osatu ahal izan dugu.

Hiru gai horiek elkarren osagarriak dira, eta, aldi berean, hainbat kezkari erantzuten diete. Proiektu sozial espliziturik gabe ezin da proiektu nazionalik egon. Era berean, proiektu sozialek gai demokratikoei heldu behar diete; bestela ez dute balio. Askatasunak jendarte politiko osasuntsu eta demokratiko baterako ingurumen naturala dira. Erabakitzeko eskubidea oinarrizko eskubidea da; haren jatorria, behin eta berriro, eta gehiengo handien bidez, eskubide horren onarpena eta erabilera demokratikoa eskatzen duten komunitateen erabakitze ahalmena aitortzen duen askatasun printzipioa da. Azken urteotan areagotu diren eta gehiengo sozialak kolpatzen dituzten desberdintasun prozesuei buelta ematea bilatzen du aldaketa sozialak. Bizitzaren sostengarritasuna prozesu sozial, politiko edo ekonomiko ororen erdigunean egon behar da, merkatuak alboratuz.

Nazioartean kontsakratutako hainbat printzipio aterki bakar baten azpian bildu behar dira, eta printzipio horiek hau guztia jaso behar dute: eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun eskubideak, bakea, ekosistema iraunkorra eta bizitza duina, identitateen eta kulturartekotasunaren onarpena, autogestioaren bidezko demokrazia parte-hartzailea, gardentasuna, kontuak ematea, nazioarteko elkartasuna eta lankidetza, elikadura burujabetza, ekonomia solidarioa eta, jendarte digitalari dagokionez, pribatutasuna, sartzeko eskubidea, prokomuna, software eta kultura libreak eta sareen neutraltasuna.

Gizarte zibileko kideak gara, sentsibilitate askotarikoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak eta Nafarroako Foru Erkidegokoak, eta ziur gaude posible dela programa eta hautagaitza bateratuak osatzea lurralde guztietan aro politiko berri bat bultzatzeko, hurrengo hauteskunde orokorretan Euskal Herriko jendartearen gehiengoaren apustua izan daitezen, pertsona guztientzat eskubide guztiak defendatuz eta jarrera proaktibo batekin PPk herritarren kontra aktibatu dituen politikei aurre eginez.

Dokumentu hau sinatzen dugunok proposamen hau elkarrekin aztertzeko ahalegina egitera animatzen ditugu indar horiek. Gure babes osoa izango dute horretarako.Gaurtik hasita gizarte zibileko pertsona esanguratsuen sinadurak  jasoko ditugu eta indar-politikoekin elkarrizketa hasiko dugu.

Ramón Zallo (catedrático de la UPV-EHU), Irantzu Varela (Faktoria Lila, feminista), Pedro Ibarra (Catedrático de la UPV-EHU), Mari Luz Esteban (profesora  de la UPV-EHU), Mariano Ferrer (Periodista), Francisco Letamendia (Ortzi) (Profesor UPV-EHU), Beatriz Zabalondo (Profesora UPV-EHU), Alfonso Dubois (profesor UPV-EHU y cooperante) Beatriz Plaza (socióloga y feminista), Juan Hernández Zubizarreta (profesor de la UPV-EHU), Juana Aranguren (abogada y feminista), Jose Ramón Mariño (economista y miembro de ATTAC), Begoña Zabala (feminista e internacionalista), Beatriz Zabalondo (UPV-EHU irakaslea), Iñaki Barcena (profesor de la UPV-EHU y ecologista), Leire Groven Hernández (socióloga y feminista), Xabier Barber (sindicalista), Mikel de la Fuente (profesor de la UPV-EHU), Yolanda Jubeto (profesora de la UPV-EHU), Petxo Idoiaga ( profesor UPV-EHU), Mikel Gómez Uranga (catedratico UPV-EHU), Luis Guridi (profesor UPV-EHU), Idoie Zabala (profesora UPV-EHU),  Victor Pozas (profesor UPV-EHU), Iratxe Fresneda (profesora de la UPV-EHU y periodista)

# *Llamamiento para candidaturas unitarias por un nuevo tiempo político en la Comunidad Autonoma Vasca Y En La Comunidad Foral de Navarra*

Vivimos tiempos de y para el cambio que exigen afrontar fundamentalmente tres temas de gran preocupación social en Euskal Herria.

-Hay necesidad de un cambio social mediante un giro radical y profundo en políticas públicas y actitudes sociales, dando por acabadas las políticas de austeridad y la utilización de la crisis para una involución social tanto en los niveles de renta como en el empleo, los servicios públicos o los sistemas de protección. La crisis que padecemos es una crisis estructural -de superación de límites del planeta- y de cuidados, en el sentido de que cada vez resulta más difícil poder atender las necesidades de reproducción social y bienestar cotidiano. Las políticas de ajuste y de recortes refuerza la lógica patriarcal de la división sexual del trabajo.

-Hay necesidad de iniciar y construir un proceso democrático en el Estado español incluyendo la construcción política de las comunidades nacionales que lo deseen. Y ello mediante procesos constituyentes que vayan más allá de la reforma constitucional o de las reformas estatutarias y en los que se reconozcan a la Comunidad Autónoma Vasca y a la Comunidad Foral de Navarra como sujetos de decisión, independientemente de que en ese proceso se barajen alternativas distintas (independencia, federación o autonomía).

-Hay necesidad de asumir, desde el pluralismo y el rechazo de todas las violencias, la consolidación del proceso de paz y la normalización política, la ampliación de las libertades y la eliminación de los últimos cambios legales que, en aras a la seguridad, sacrifican aún más libertades fundamentales. La experiencia hecha desde la Transición ha permitido detectar una falta de democracia real y componer una mirada nueva y compartida sobre lo que sería una sociedad realmente democrática y los modos participativos ciudadanos.

Estos tres temas son, a la vez, complementarios y responden a distintas preocupaciones. Así como no cabe proyecto nacional sin un proyecto social explícito, no hay proyecto social que valga si no aborda las cuestiones democráticas. Las libertades son el medio ambiente natural para una sociedad política sana y democrática. La cuestión del derecho a decidir es un derecho fundamental derivado del principio de libertad que reconoce la capacidad de decisión de las comunidades que reiteradamente y por mayorías amplias reclaman ese reconocimiento y su ejercicio democrático. El cambio social busca revertir los procesos de desigualdad que se han acentuado en los últimos años y que golpean a las mayorías sociales. La sostenibilidad de la vida debe estar en el centro de todo proceso social, político o económico, desplazando así a los mercados.

Se trata de reunir en un mismo paraguas principios consagrados internacionalmente que combinen los derechos civiles, políticos, sociales, económicos, culturales y los derechos de igualdad entre hombres y mujeres, paz, ecosistema sostenible con vida digna, reconocimiento de identidades e interculturalidad, democracia participativa con autogestión, transparencia, rendición de cuentas, solidaridad internacional y cooperativa, soberanía alimentaria, economía solidaria, y, en lo que se refiere a la sociedad digital, la defensa de la privacidad, el derecho de acceso, el procomún, el software y cultura libres o la neutralidad de las redes.

Estamos persuadidos, como miembros de la sociedad civil y con sensibilidades distintas tanto de la Comunidad Autónoma Vasca como de la Comunidad Foral de Navarra, de que son posibles programas y candidaturas conjuntas para impulsar un nuevo tiempo político en los distintos territorios y que se constituyan en apuestas socialmente mayoritarias en Euskal Herria en las próximas Elecciones Generales para que confronten con una actitud proactiva, y en defensa de todos los derechos para todas las personas, las políticas activadas por el PP contra los y las ciudadanas.

Quienes suscribimos este documento, animamos a que las fuerzas políticas del cambio hagan el esfuerzo de una puesta en común, para la que contarán con todo nuestro apoyo. A partir de hoy iniciamos una recogida de firmas de personas representativas de la sociedad civil y un diálogo con las fuerzas políticas.

Ramón Zallo (catedrático de la UPV-EHU), Irantzu Varela (Faktoria Lila, feminista), Pedro Ibarra (Catedrático de la UPV-EHU), Mari Luz Esteban (profesora de la UPV-EHU), Mariano Ferrer (Periodista), Francisco Letamendia (Ortzi) (Profesor UPV-EHU), Beatriz Zabalondo (Profesora UPV-EHU), Alfonso Dubois (profesor UPV-EHU y cooperante) Beatriz Plaza (socióloga y feminista), Juan Hernández Zubizarreta (profesor de la UPV-EHU), Juana Aranguren (abogada y feminista), Jose Ramón Mariño (economista y miembro de ATTAC), Begoña Zabala (feminista e internacionalista), Beatriz Zabalondo (UPV-EHU irakaslea), Iñaki Barcena (profesor de la UPV-EHU y ecologista), Leire Groven Hernández (socióloga y feminista), Xabier Barber (sindicalista), Mikel de la Fuente (profesor de la UPV-EHU), Yolanda Jubeto (profesora de la UPV-EHU), Petxo Idoiaga ( profesor UPV-EHU), Mikel Gómez Uranga (catedratico UPV-EHU), Luis Guridi (profesor UPV-EHU), Idoie Zabala (profesora UPV-EHU), Victor Pozas (profesor UPV-EHU), Iratxe Fresneda (profesora de la UPV-EHU y periodista)